



## BIZKAIKO TEKNOLOGI BERRIKUNTZAREN INKESTA



bizkaiko  
berrikuntza  
behatokia

observatorio  
de la innovación  
de bizkaia

Hau txosten zabalago  
baten laburpena baino ez  
da, web honetan eskura  
daitekeena.

[www.barrixe.com](http://www.barrixe.com)



# AURRETIK 2014

Analisi hau egiteko oinarritzat hartu dira Euskal Estatistika Institutuaren (Eustat) 2012ko Berrikuntza Teknologikoaren Inkestan bildutako datuak. Informazio hori ad-hoc eskuratu du Barrixe-Bizkaiko Berrikuntzaren Behatokiak.

Inkestak dioenez, berrikuntza teknologiko bat da produktu (edo zerbitzu) berri bat edo nabarmen hobetu bat merkatuan sartua dagoena (produktuaren berrikuntza) edota establezimenduaren barruan prozesu berri bat edo nabarmen hobetu bat sartzea (prozesuaren berrikuntza). Elementu hauexetan oinarritzen da berrikuntza teknologikoa: garapen teknologiko berrien emaitzetan, lehendik existitzen diren teknologien konbinazio berrietan edota establezimenduaren beste ezagutza batzuen erabileran. Ez dira berrikuntza teknologikotzat hartu behar antolakuntza edo kudeaketa arloetako aldaketa hutsak.

Berrikuntza Teknologietan gastatzen duten enpresak

## GUZTIRA BIZKAIAN



## GUZTIZKO GASTUA BIZKAIAN

1.007.957.928 €

BATEZ BESTEKO GASTUA BIZKAIAN

170.005 €

Industria: 260.842 €  
Eraikuntza: 73.947€  
Zerbitzuak: 152.816 €

# Teknologi Berrikuntzarako Jarduerak

Teknologi berrikuntzarako jarduerak zientzia, teknologia, antolakuntza, finantza eta merkataritza lanen multzoa dira, baita jakintza berrietarako egindako inbertsioa ere, teknologikoki berriak edo hobetuak diren produktuak edo prozesuak egitera daramaten edo eraman nahi duten jakintzak, alegia.

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %24,3k teknologi berrikuntzarekin lotutako jardueretan gastatu dute 2012. urtean, hau da, 2011n baino apur bat gutxiago (%24,5).

Bizkaian berrikuntza teknologikoetan eginiko gastua guztira 1.008 milioi eurokoa izan zen 2012an, eta horrek esan nahi du enpresa bakoitzaren batez besteko gastua 170.005 eurokoa izan zela.

## TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO JARDUERAK



BARNEKO I+G



MAKINAK, EKIPOA ETA  
HARDWAREA ETA SOFTWARE  
AURRERATUA EROSTEA



BERRIKUNTZA JARDUERETARAKO  
PRESTAKUNTZA



KANPOKO I+G



DISEINUA ETA  
BESTE BATZUK



ESKUBIDEAK, PATENTEAK, LIZENTZIAK,  
KNOW-HOW, ETA ABAR EROSTEA.



KANPOKO EDO BARRUKO  
MERKATURATZE JARDUERAK, PRODUKTU  
BERRIAK EDO HOBETUAK SARTZEAREKIN  
UZENEAN ERLAZIONATURIK DAUDENAK.

# Produktuan Edo/eta Prozesuan Berritzen Duten Enpresak

Produktu edota prozesu berritzaileak sortu dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresa berritzaileen portzentajea %25,8koa izan da 2012an, hau da, aurreko urtean baino 2,5 puntu baxuagoa. 10 langile baino gehiagoko Bizkaiko enpresek produktuan (%17,4) baino prozesuan (%21,3) berritzen dute gehiago.

Produktu/zerbitzu arloko berrikuntza gehienak establezimenduan bertan egiten dira (%37,9). 2011. urteko negozio zifraren %75,4 aldatu gabeko edo gutxi aldatutako produktuei (ondasunak edo zerbitzuak) zor zaie (gutziz garatutakoak eta beste batzuek produzitutakoak barne).

Prozesuetan berritzen duten establezimenduei ere galdetu zaie nork garatu dituen prozesu horiek, eta kasu honetan aukera bat nabarmendu da besteen gainetik: establezimenduan bertan eginiko prozesuek %43,2ko portzentajea erregistratu dute, aurreko urtekoaren ia berdina (%43,3).


Bestalde, 2012an berrikuntzen %19,2 bukatu gabe zeuden, eta bertan behera uztearen tasa %4,7ra igo zen (2011n %3,4koa izan zen).

## Produktu (ondasunak edo zerbitzuak) berrikuntza GUZTIRA BIZKAIAN



## 2009-2011 ALDIAN MERKATURATUTAKO PRODUKTU (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK) BERRIKUNTZEK IZANDAKO INPAKTU EKONOMIKOA.

2011KO NEGOZIO ZIFRAREN % ONDOKO HAUEK DIRELA MEDIO



2009-2011 ALDIAN ALDATU GABEKO EDO GUTXI ALDATUTAKO PRODUKTUAK (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK), GUZTIZ GARATUTAKOAK ETA BESTE BATZUEK PRODUZITUTAKOAK BARNE.

2009-2011 ALDIAN SARTUTAKO PRODUKTU BERRIAK EDO NABARMEN HOBETUAK (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK), ENPRESARENTZAT BAKARRIK NOBEDADEA IZAN DIRENAK.

2009-2011 ALDIAN SARTUTAKO PRODUKTU BERRIAK EDO NABARMEN HOBETUAK (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK), ENPRESENTZAT EZ EZE, MERKATUARENTZAT ERE NOBEDADEA IZAN DIRENAK.

Prozesuko berrikuntza

## GUZTIRA BIZKAIAN



MOTA



ONDASUN EDO ZERBITZU  
BERRIAK EDO NABARMEN  
HOBETUAK FABRIKATZEKO  
EDO PRODUZITZEKO  
METODOAK



ONDASUN EDO ZERBITZU  
BERRIAK EDO NABARMEN  
HOBETUAK BANATZEKO  
SISTEMAK EDO ONDASUN ETA  
ZERBITZU HORIENTZAKO  
SISTEMA LOGISTIKOAK



MANTENIMENDU SISTEMA,  
OPERAZIO INFORMATIKO,  
EROSKETA EDO  
KONTABILITATEKO OPERAZIO  
BERRIAK EDO NABARMEN  
HOBETUAK.

Garapen bidean dauden eta bertan behera utzi diren berrikuntza jarduerak

## GUZTIRA BIZKAIAN



GARAPEN BIDEAN ZEUDENAK



BERTAN BEHERA UTZITAKOAK



# Berrikuntza Teknologikoaren Efektuak

Bizkaiko enpresen %92,4ren iritziz berrikuntza teknologikoak efektu garrantzitsuak dauzka beren jardueraren garapenean.


Nagusiki produktuen gainean du eragina (%83,7) eta kalitate handiagoa ematen die ondasun eta zerbitzuei (%71,7). Enpresen %73,4k uste du berrikuntza teknologikoak efektu garrantzitsuak dauzkala prozesuetan, produkzioarako edo zerbitzuak emateko gaitasuna handitzen duelako (%62,5).

Enpresen %54,8ren iritziz garrantzitsuak dira enpleguaren gainean dituen efektuak, bereziki enplegua mantentzekiari (%35,4) eta enplegu kualifikatua emendatzekari (%28,1) dagokionez.


Beste efektu hauek ere azpimarratu dituzte: ingurumen, osasun edo segurtasun araudietako baldintzak betetzea (%42) eta inpaktu txikiagoa izatea ingurumenean (%39,7).

Jarduera teknologikoaren efektuak

## EFEKTUEN GARRANTZIAREN %



## EFEKTUEN GARRANTZIAREN % - jarraipena





# Berrikuntza Teknologikoko Jardueretarako Informazio Iturriak


Enpresek emandako erantzunen arabera, informazioa oso aldagai garrantzitsua da enpresa berritzaileentzat beren berrikuntzak gauzatzeko orduan.

Berrikuntza teknologikoko jardueretarako informazio iturri nagusia barrukoa da, hau da, enpresetako departamenduak edo langileak (%83,4). Merkatutik datozen informazio iturriek ere badute garrantzia (%81), eta horien artean esanguratsuenak dira ekipo, material, osagai edo software hornitzaileak (%63,9) eta bezeroak (%63,2).

Iturri instituzionalen artean nabarmentzekoa da teknologi zentroetatik datorren informazioaren garrantzia (%36,5) eta beste iturri batzuk ere bai, hala nola konferentziak, azokak, argitalpenak edo sektore elkarteak. Dena den, azken horien portzentajeak oso azpitik daude (%38,8).

Berrikuntza teknologikoko jardueretarako informazioaren garrantzia

## INFORMAZIO ITURRI DESBERDINEN GARRANTZIAREN %





Berrikuntza teknologikoko jardueretarako informazioaren garrantzia

## INFORMAZIO ITURRI

DESBERDINEN GARRANTZIAREN % - jarraipena



## Informazio Teknologia Berrikuntza Jarduerak Iturriak



INDUSTRIA



ERAIKUNTZA



ZERBITZUAK


# Lankidetza Hitzarmenak Dituzten Establezimenduak

Bizkaian berrikuntzak sortzen dituzten enpresen %40,4k I+G-ko jardueren inguruko lankidetza hitzarmenak izenpetu dituzte beste enpresa edo erakunde batzuekin 2010-2012 aldian. Portzentaje hori 2009-2011 aldikoa baino 9,6 puntu handiagoa da.

Lankidetza akordio gehienak teknologi zentroekin hitzartzen dira (%61,3) eta ondoren enpresaren edo enpresa taldearen beste establezimendu batzuekin (%54,3), bezeroekin (%46,6) eta ekipo, material, osagai edo software hornitzaileekin (%44,9).

Eremu geografikoka, nagusiki Euskadin (%87,2) eta Estatuko gainerako erkidegoetan (%30,6) kokatutako organismo edo enpresekin hitzartzen da lankidetza. Dena den, aipatzekoa da lankidetzaren %30,6 EBN kokatutako organismo eta enpresekin egiten dela, edo munduko beste toki batzuetan kokatutakoekin ere bai (%20,1).

## Lankidetza teknologikoa HIZKETAKIDE MOTA



# Berrikuntzaren Finantzazio Publikoa

Bizkaiko enpresen %59,2k laguntza finantzario publikoa jaso du 2012an, mailegu edo diru-laguntza moduan, berrikuntza jardueretarako; portzentaje hori 2011. urtekoa baino 7,7 puntu handiagoa da.

Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritza da laguntza gehien eman dituen administrazio publikoa (%79,1) eta Administrazio Zentrala (%37,7) eta Foru Aldundiak (%24,2) ere bai.

Berrikuntza teknologikoaren finantzaketa publikoa

## GUZTIRA BIZKAIAN



Berrikuntza teknologikoaren finantzaketa publikoa


## SEKTOREAK



INDUSTRIA



ERAIKUNTZA



ZERBITZUAK


# Berrikuntza Eragozten Duten Faktoreak

Aztergai dugun inkestaren arabera, 2012. urtean Bizkaiko enpresen %69,8k eragozpenen bat aurkitu du bere berrikuntza jardueran, hots, 2011n baino 1,2 puntu gehiago.

Zailtasun gehien arrazoi nagusia faktore ekonomikoak izan dira (%61,9), baina enpresaren barneko faktoreek ere portzentaje handia hartzen dute (%42), eta lehenengoak hazi badira ere (3,7 puntu 2011rekiko), bigarrenak 3,4 puntu murriztu dira.

Faktore ekonomikoen artean, enpresen erdiak baino gehiagok uste du zailtasun nagusia kostu handia dela. Bestalde, enpresen barneko zailtasunen artean langile kualifikaturik eza eta antolakundearen zurruntasuna dira gabezia nabarmenenak.

## Berrikuntza teknologikoa eragozten duten faktoreak



# Patenteak Eta Bestelako Babes Metodoak

2010-2012 aldian, Bizkaiko enpresen %12,4k patenteren bat eskatu du, patenteren bat indarrean zuen edo beren asmakizunak edo berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili du. Gainera, soilik enpresa berritzaileak kontuan hartzen baditugu portzentaje hori %29,7koa da. Ehuneko hori 2011koa baino 5,2 puntu handiagoa da.

Bizkaiko enpresen %9k patenteren bat eskatu du bere enpresan garatutako asmakizunak edo berrikuntzak babesteko. Indarrean dauden patenteei erreparatur gero, portzentajeak behera egin du 2012an eta %11,2an kokatu da, 2011n %12,1ean zegoen bitartean.

Enpresen %22,7k asmakizunak eta berrikuntzak babesteko bestelako metodoren bat erabiltzen du; horietatik erabiliena marka da (%21,3) eta, neurri txikiagoan, marrazki edo eredu industrialak (%9,5) eta egile eskubideak (%6,1).

## Enpresan garatutako asmakizunak edo berrikuntzak babesteko BIZKAIKO ENPRESAK GUZTIRA



## BIZKAIKO ENPRESA BERRITZAILEAK GUZTIRA



# Antolakuntzako Berrikuntza

Antolakuntzako berrikuntza deitzen zaio enpresaren barne funtzionamenduan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan lehenago inoiz erabili gabeko antolakuntza metodo berriak sartzeari. Bizkaiko enpresen %18,9k horrelako aldaketaren bat egin dute 2010-2012 aldian. Ehuneko hori 2009-2011 aldikoa baino 0,8 puntu txikiagoa da.

Aldaketa portzentaje handiena beste establezimendu, enpresa edo erakundeekiko kanpo harremanen kudeaketa metodo berrietan gertatu da (%92,6). Enpresen %48,3k barruan garatu dituzte antolakuntza arloko berrikuntzak 2010-2012 aldian.

Antolakuntza arloko berrikuntza horiek ondorio hauetan islatzen dira: ondasun eta zerbitzuen kalitate hobea (%82,9), bezeroaren edo hornitzailearen premiei erantzuteko epe laburragoa (%71,8) eta langileen asebetetzea hobetzea edo errotazio tasak murriztea (%63,2).

Antolakuntza arloko berrikuntza motak eta eragin maila


## ANTOLAKUNTZA ARLOKO BERRIKUNTZA MOTAK



BESTE ESTABLEZIMENDU,  
ENPRESA EDO ERAKUNDE  
BATZUEKIKO KANPO  
HARREMANAK KUDEATZEKO  
METODO BERRIAK



ENPRESA PRAKTIKA  
BERRIAK LANAREN  
ANTOLAKUNTZAN EDO  
ENPRESAKO  
PROZEDURETAN



LANTOKIAK ANTOLATZEKO  
METODO BERRIAK, HOBETO  
BANATZEKO  
ERANTZUKIZUNAK ETA  
ERABAKIAK HARTZEKO  
ARDURAK

# Merkaturatze Berrikuntza


Merkaturatze berrikuntza deitzen zaio merkataritza estrategia edo kontzeptu berriak inplementatzeari; estrategia edo kontzeptu horiek aurretik erabiltzen zirenengandik desberdinak izan behar dute eta sekula erabili gabeak. Aldaketa handia ekarri behar du produktuaren diseinuan edo ontziratzean, posizionamenduan, sustapenean eta prezioan. Bizkaiko enpresen %11,3k horrelako aldaketaren bat egin dute 2010-2012 aldian. Ehuneko hori 2009-2011 aldikoa baino 1,9 puntu handiagoa da.

Merkaturatze arloko berrikuntzen artean sustapen teknika berriak (%7,1) eta produktuak posizionatzeko metodo berriak (%7) dira aukerarik erabilienak.

Merkaturatze arloko berrikuntzek bi ondorio nagusi hauek dituzte: bezeroaren premiei erantzuteko gaitasuna hobetzea (%76,7) eta produktuen ikusgarritasuna handitzea (%75,7). Tasa nahiko handia erregistratu dute baita ere produktuak bezero talde berriengana iritsarazteko berrikuntzek (%70,5).

Merkaturatze arloko berrikuntza motak eta eragin maila

## MERKATURATZE ARLOKO BERRIKUNTZA MOTAK







bizkaiko  
berrikuntza  
behatokia

observatorio  
de la innovación  
de bizkaia



## Newsletter

Harpidetu zaitez buletinera eta jaso gure Newsletter-a. Bertan aurkituko dituzu azken laguntza eta diru-laguntzak, albiste interesgarriak, agenda eta berrikuntzari buruzko informazio guztia.



@barrixe

## Twitter

Twitter kontu bat dugu orain. Aukera izango duzu gurekin bat egiteko eta berrikuntzarekin lotutako guztia egunero ezagutzeko.



/barrixe

## facebook

Badugu profila Facebooken, bisita gaitzazu eta bat egin Facebookekin, horrela Barrixen argitaratutako berrikuntzako azken albiste guztien berri izango duzu.



## RSS

Jaso ezazu Barrixekeko informazio eguneratua modu sinple batean eta zuzenean zure ordenagailuan, webean sartu beharrik gabe.



## News

Berrikuntzaren inguruko azken berriak ezagutu nahi dituzu? Azken laguntzak, azken albisteak, joerak eta ikastaroak?